

Onena, Sabino Etxeberria

Erregetako Xake
Txapelketa izan da ▶ 4



Jostailuak, bitxiak, etxetresnak eta arropa izan dira opari nagusienak

SALMENTAK ▶ Eskualdeko dendariak gustura ageri
dira egun hauetan egindako salmentekin ▶ 2



Tolosako haur batzuk atzo goizean bere jostailu berriekin etxean jolasten. MADDI SOROA

OLAI A ESKITXABEL



Van der Linden izan da irabazle ziklo-kros proban

ASTEASU ▶ Flandestarra —argazkian— zen
faborito nagusia; Trebon estatubatuarra eta
Seco euskalduna sailkatu ziren ondoren ▶ 5

Kiroltasuna Shanti Torneoko finaletan

Parte-hartzea
handituz doa ▶ 3

«Ziklo bati amaiera
eman behar geniola
iruditu zaigu»

Ibartarrak «musikari ikaragarriekin» jo
du; hilaren 22an dute azken saioa ▶ 6

**HITZA-KO
JERTSE
BERRIA
ESKURA**

Gertuen duzun
egoitzan
lor dezakezu

Modelo eta kolore
ezberdinak
neska nahiz mutilentzat

Zatoz zurearen bila!
TOLOSako eta LEITZako
egoitzetara



SALMENTAK ▶

Zer saldu da Gabonetan?

Gizarteak bizi duen ekonomi krisia egonda ere, asko saldu dute Gabonetan eta dendariak gustura daude; jostailuekin batera, arropa, osagaiak eta etxetresnak izan dira salduenak

MADDI SOROA

Olentzero, Erregeak, opariak, detaileak, erosi, erosi eta erosi. Jende askok gauza asko erosiko ditu seguraski egunotan, baina, zer saldu da Gabon hauetan?

Tolosako lau denda ezberdinetako salmentak aztertu ondoren, hala nola, La Casa Azul jostailu denda, Beotibar etxetresna elektrikoaren denda, Avalon osagai denda eta Kimetz arropa denda, orokorrean denetik eta asko saldu dela jakin du HIRZAK.

La Casa Azul-eko Beatriz Ortiz de Zaratek azaldutakoaren arabera, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat, musikazko, argizko edota mugimendu askodun jostailuak izan dira gehien saldu direnak, «urtero moduan». 3 eta 6 urte bitarteko haurren artean, berriz, sukaldak izan dira gehien saldu direnak, bai neskenentzat, baina baita mutilentzat ere. 6 eta 8 urte inguruko haurren artean, ordea, playmobilen Noeren ontzia izan da mutilen kasuan gehien saldu dena. Nesken kasuan, oster, Baby Born panpina izan da Gabon hauetako opari nagusia. Ortiz de Zaratek azaldu duenez, harrirtuta geratu da panpin honen salmentarekin, izan ere «gauza arraroa gertatu da, askotan uste duzu 9 urte ingururekin ez dutela panpinik nahi, baina izugarri saldu dira, adin guztietakoentzat gainera».

Eroste datari erreparatu gero, Erregetarako Olentzerotarako baino opari gehiago saltzen direla azaldu du dendari honek. Hala ere, «abendua lehengo hamabostaldia izan da gehien saldu den garaia, denda gainezka egon da», gogoratu du, baina «azken orduko erosketarik ez da sekula falta ere», azpimarratu zuen.

Jostailuetaz gain, ordea, izan da opari gehiago ere Tolosaldeko etxeetan. Beotibarreko Amaia Altunak azaldu duenez, erregaian plantxa izan da gehien saldu den etxetresnatariko bat. Bestalde, telebista lauak eta DVD grabagailuak ere asko saldu omen dira. Gazteen artean eta teknologia berrirei bultzada emanez, berriz, MP3 irakurgailuak izan dira Gabon hauetako protagonista nagusia.

Erosle motari dagokionez, Altunaren esanetan, «pisua osatzen ari diren gazteak izan

dira dendara gehien hurbildu direnak».

Urtero legez, ordea, arropa eta bitxi politik ez da falta izan milaka eta milaka opariren artean. Avalon-go Patricia Casajus eta Monica Morenok azaldu dutenez, «gehien saldu dena tokillak eta pontxoak izan dira dudarik gabe, aurtengo moda izan baitira». Bitxiak, poltsak eta txapelak ere asko saldu omen dira, izan ere, hauetariko asko oparitu baititu jendeak Gabon hauetan. Gaztetxoenen kasuan, berriz, erretxinazko eta kokozko bitxiak izan dira gehien saldu direnak.

Casajusek azaldu duenez, «asko saldu dugu, espero genuena baino gehiago eta genituen helburuak bete ditugu guztiz». Beraz, gustura agertu dira Avalon-go jabeak, are gehiago dendak urte bete oraindik bete ez duela kontuan hartuz gero.

Kimetz-en ere, aipaturiko beste dendatan bezala, asko saldu dela adierazi du Juanjo Ruizek eta zera azpimarratu du «denda guztietan aipatzen da krisi txiki bat egon dela, baina gu pozik gaude eginiko salmentekin».

Denetik asko saldu dutela azaldu du Ruizek, baita «horretarako egun aproposak» direla gogoratu ere. Erosketa daten inguruan, berriz, denetik dagoela adierazi du Kimetz-eko arduradunak. Izan ere, «asko dira opariak aldeztu aurretik erosten dituztenak, baina azken unean erosteagatik erosten duen jendea» ere badela gogorarazi du.

Beraz, jostailuak, etxetresna elektrikoak, bitxiak, arropa... denetik ekarri dute Olentzerok eta Errege Magoek Tolosaldeko hamaika etxetara. Baina tartean, ordea, egongo zen ikatzik ere seguraski.

Bai, baina ez

Neskek, mutilak, gizonak, emakumeak... Opari berak bai, baina ez. Avalon-go Monica Morenok azaldu duenez, «aurtengoa mutilentzako gauza gehiago saldu dute. Lehen bi gauza ziren beti, orain, ordea, gero eta gehiago dira, poltsak, lepokoak edota pultserak erabiltzen dituzten gizonezkoak». La Casa Azul-eko Ortiz de Zaratek, ordea, oraindik ere neska eta mutilen artean opari ezberdinak egiten direla adierazi du.



Telebista lauak izan dira gehien oparitu den tresnatariko bat, eroslerik gehienak, berriz, gazteak. MADDI SOROA



Mutilentzako arropak gora egin du. M.SOROA



Txapela asko saldu da egun hauetan. M.SOROA



Azken unean erosten duen jenderik ere bazen jostailudendetan. M.SOROA

TOLOSA ▶ KIROLA

Kiroltasunez betetako finalak, XXIII. Shanti Txapelketan

Garaile, Tigre txikiak mutikotan eta Oiartzabal eta Samaniego-Orixe neskatotan

JAIONE ASTIBIA

Zaletuz beteta ageri ziren harmailak atzokoan, Berazubiko kiroldegian: futbitoko XXIII. Shanti Txapelketako finalak zeuden jokoan.

Bi mailetako partiduak jokatu ziren, neskatoen eta mutikoen sailetan eta zinez, ahalegin guztiekin eta «kiroltasunez», jokatu ere, han ikusi zenaren arabera eta ondoren, antola-

tzaileek beraiek nabarmendu nahi izan zuten gisan.

Nesketan, B mailakotan, Oiartzabal taldea atera zen garaile, Negritas-en aurka, 2-0eko emaitzarekin; A mailan, berriz, Samaniego-Orixe taldeak Txalupari, 2-0koarekin irabazi zion (partidurik lehiakorrera izan omen zen, bestalde). Mutiletan eta bi mailetan, gainera, Tigre txikiak taldeko berastegiarrak atera ziren irabaz-

tun, B mailan 4-1ekoaz gailenduz, Bihurriak taldeari, alde batetik, eta A mailan, Isastegiri, 4-0-ko emaitzarekin.

Orohar oso balorazio baikoarra egin zuten antolatzaileek atzokoan, «urtetik urtera parte-hartzea handituz baitoa», argudiatuz, eta ikastetxe desberdinetako gaztetxoek talde beretan, elkarrekin, jokatzeko duten aukera hori ere, bereziki aitatu nahi izan zuten.

TXAPELKETAKO IRABAZTUNAK ▶

B maila, neskak: Oiartzabal.

A maila, neskak: Samaniego-Orixe.

B maila, mutilak: Tigre txikiak.

A maila, mutilak: Tigre txikiak.



A mailan, Samaniego-Orixe taldeko jokalariek izan ziren garaile. J. A.



A mailan, Tigre txikiak izan ziren irabaztun, mutiletan. JAIONE ASTIBIA.



B mailako mutilen talde garailea, Tigre txikiak izan dira ere. J. ASTIBIA



Oiartzabal taldekoek irabazi zuten nesketako B maila. J. ASTIBIA

ALEGIA ▶

Ikastaroak datorren astean hasiko dira

Datorren astelehenean, urtarrilaren 10ean, jarriko dira martxan Kirol Kultur Etxeko ikastaroak. Aerobika egunero izango da 18:30etik 19:30era, hirugarren adinekoentzako gimnastika eta mantenu gimnastika astelehenean, asteazkenean eta ostiralean izango dira 11:00-etatik 12:00etara eta 14:45-etik 15:45era, hurrenez hurren. Karatea, berriz, astelehenean 17:00etatik 18:00etara eta ostegunetan 18:15-etik 19:15era. Ikastaroetan izena emateko 943 654698 telefono zenbakira deitu daiteke.

AMEZKETA ▶

Eskolako zozketako saria, Beartzanan

Zumadi eskolaren aldeko zozketan zenbaki saritua 2.122a izan da; zozketa, abenduaren 24ean egin zen. Sariduna, Beartzana jatetxeko Jose Ignazio Arsuaga izan da. Otar bat, landa turismoko etxe batean asteburu bat eta gastuetarako 200 euro eta beste 200 euroko bale bat irabazi ditu. Guraso Elkarteak sariduna zoriondu nahi izan du eta bide batez laguntza eman duten guztiei esker ona agertu.



J.I. Arsuaga, otarrarekin. HITZA

HITZA **txokoa** lagunena

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

LEITZA ▶ ZINEMA

Zine denboraldia hastera doa

Gaur hasi eta udaberrira arte, herriko zineman astero-astero, aukera

JAIONE ASTIBIA

Gaurtik aurrera, astebururo, Leitzan zine emanaldiei ekinen diete. Zine denboraldia hasiko da.

Primavera, verano, otoño, invierno... *primavera* filmarekin hasiko ere. Kim Ki-duk korrearrak zuzendutakoa da lan hau, duela bi urte Donostiako Zinemaldian Publikoaren Saria jasotakoa. «Oso komertziala izan ez den arren, oso pelikula atsegina da, paraje oso politik ageri dira bertan eta umore puntuak ere baditu», argitu zuen Maria Uriartek. Bera izan baita aurtengo denboraldian, zinemas arduratuko den laguna.

Ohiko moduan, zinema saioak, ostiraletan 22:30ean eta igandeetan 19:30ean izanen dira. Eta Uriartek HITZARI jakitera eman dionez, apirila bukatu arte, proiektatuko ditu filmak, Leitzako eta Tolosako ihoteean eta Aste Santuan izan ezik.

Dagoeneko, zinema egitaraua josi samar omen dauka. Aldizkaritan, Internet-ean, zinemara joanez... lortzen omen du zinemagintzako aktulitatearen berri eta gero aukeratu: «Pelikula onak ekarri nahi ditut. Urtean 16 pelikula besterik ez ditugu proiektatuko eta, ahal dela...», zioen. Baina argitu zuenez, «aukeratzea eta nahi den hori ekartzea lortzea», bi kontu omen dira, izan ere peli-

kula on modura sailkatutakoek esaterako, lotetan etortzen omen dira, beste bi-hiru halaholakoekin batera, eta hortxe izaten omen da kakoa.

Aurtengo denboraldirako, tartekatuz jokatzeko asmoa du. Lehen aitaturako filmarekin hasi, hurrengoan *Mar adentro*, furi-furian dagoen eta alde guztietatik begiratuta, inork zalantzan jartzen ez duen Amenabarren azken lana, eta hilabetea bukatzeko, *El bosque*. Nabarmendu zuenez, gainera, nazionalitate desberdinetako filmak ekarriko ditu «arte honetan potentzia ez diren herrietako zinemagintza ikusteko ere, aukera eman behar da», argudiatuz.



Parajeak umorearekin nahasita ikusteko aukera, gaur. HITZA

Beraz, aurrerantzean, borondatez ariko diren lagun batzueri esker, Uriartek aretoko sarrean aritzeko laguntzaileak izanen baititu, hortxe izanen da herrian zinema ikusteko aukera. «Aukera hor dago», zioen berak, horretaz baliatzeko gonbidapena eginez.

TOLOSA ▶ XAKE

Sabino Etxeberriak irabazi du Erregetako Xake Txapelketa

Xabier Mujika eta Javier Baroja sailkatu ziren ondoren; 16 partaide izan ziren



Ezkerretik hasita, Baroja —hirugarrena—, Sabino Etxeberria irabazlea eta Mujika —bigarrena—. HITZA

JOXEMI SAIZAR

Ohitura bilakatu da Errege egunean Aurrera elkartean egiten duten xake txapelketa. XVIII. edizioa bete zuen atzo elkarteko kidea zen Jose Antonio Insausti xakezalearen omenez.

Atzo 16 parte-hartzaile izan ziren guztira. «Azkenaldian haur eta gaztetxo dezente inguratu da xake elkartera, baina Errege eguna ez da beraientzat egokiena. Nahiago izaten dute opartekin eta jostailuekin ibili, xake txapelketan parte hartu

baino», adierazi dio HITZARI Ramon Etxeberria elkarteko lehendakariak. Beraz, helduak izan ziren atzoko jokalariek, tolosarrak, ibartarrak eta billabonatarrek. Tartean katalan bat ere izan zen.

Partaideak bi multzotan ba-

natuta ligaxka jokatu zuten. Sabino Etxeberria eta Javier Baroja izan ziren bi multzoetan onenak. Ondoren kanporaketak egin zituzten eta aipatutako bi jokalariek horiek finalera iristea aurreikusten zuten antolatzailleek, baina finalerdian Xabier Mujikak irabazi zion Barojari eta finalera iritsi zen. Finala Sabino Etxeberriak irabazi zion. Atzo egun ona izan zuen, jokaturako partidu guztiak irabazi baitzituen. Baroja izan zen hirugarren eta izako irabazlea —Josu Mujika— laugarren. Irabazleentzat garaikurrak eta denentzat opariak eta dominak banatu zituzten Aurrera elkartekoek. Sari berezia izan zen Xabier Correderearentzat, jokalaririk gazteena. Hamaiketako ere ez zen faltatu giroa berotzeko.

Xake elkartearen hurrengo erronkak Gipuzkoako Liga —bi aste barru hasiko da— eta hilaren 23an hasiko den eskualde mailako eskolarteko txapelketa dira. Eta zaletu guztiak igandero elkarteko egoitzan —plaza Berria 1— xakean aritzeko aukera badutela badakite. Gonbitea luzatuta dago nahi duen guztiarentzat.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaldia. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Ugarte, M.T. Euskal Herria 46 (Ibarra). 943 673 274
 Gimeno. Elbarren 52 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaldia. 687 41 00 22
 anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
 ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
 leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria eta tabernaria.
 Sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera. 943 68 21 54.
Garbitzailea. Emakume bat behar da ebeko garbiketarak egiteko. 943 01 92 88.
Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da, asteburuetan lan egiteo. 943 69 19 33.

ASTEASU ▶ NAZIOARTEKO VI. ZIKLO-KROS PROBA

Wesley Van der Linden erraz nagusitu da

Faborito nagusietako bat zen; iazko proba ere flandestarrak irabazi zuen

OLAIA ESKITXABEL

Tarteka euria egin arren, orokorrean, ateri egon zen Asteasun egin zen Nazioarteko Ziklo-kros Probaren VI. edizioan.

10:15ean kadeteen probari eman zitzaion hasiera; ordu erdiz aritu ziren bi kilometro eta erdi inguruko ibilbidean bueltaka. Mutiletan, lehenengoa, Jon Izagirre izan zen. Bi neska ere atera ziren lasterketa horretan; denborarik hobereña Andrea Vadillok lortu zuen. Ondoren, juniorrak eta emakumezkoak aritu ziren. Ordurako ikusle kopurua ugalduta egin zula nabarmen somatu zen ibilbidean.

12:30ean zen hastekoa elite- eta 23 urtez azpikoaren proba.

Saioa, ordu laurden beranduago hasiko zela iragarri zuten, txirrindularietako bat (Jonathan Page estatubatuarra), eta gaizkiulertu bat zela-eta, iristear zelako.

Bi txirrindulari, lehian

80 txirrindularik hartu zuten irteera nazioarteko proban; eta ordu beteko saioa bete zuten. Irteera ziztu bizian egin ondoren, berehala osatu zen ziklo-krosslari hobereñen taldetoxa; tartean zeuden, Seco, Ayuso, Yus, Van der Linden, Trebon, Rondelez... Hala ere, itzuliak aurrera joan ahala, bi txirrindularik hartu zuten lasterketaren gidaritza: Ryan Trebon estatubatuarra eta Wesley Van der Linden flandestarrak.

Lasterketa amaitzeko lau itzuli inguru falta zirenean, aurre hartu zuen Van der Lindenek eta bakarrik egin zuen itzuli bat; hala ere, Trebon estatubatuarra parean jartzea lortu zuen. Azken itzulian, hamargarrenean, alegia, Vlandereen taldeko gazteak erritmoa bizitu eta helmugara bakarrik iristea lortu zuen bigarren aldiz jarraian Asteasuko Nazioarteko Proban, elite zein hogeita hiru urtez azpiko kategorietan, nagusituz.

Trebonek ezin izan izan zion eutsi irabazlearen azken erasoari eta bigarren sailkatu zen, irabazlearengandik hogeita bat segundura. Hirugarren postua David Secok eskuratu zuen; Van der Linden iritsi baino bi minutu beranduago iritsi zen busturiarra. Rondelez izan zen laugarren eta Unai Yus, bostgarren. Aipatzekoa da Itsasondan Gipuzkoako txapel-dun izendatu zen Zugaitz Ayuso gazteak proba utzi zuela.

Proba amaitu bezain laster sari banaketari ekin zioten.



Irteera. Guztira 80 txirrindularik hartu zuten irteera elite eta 23 urtez azpikoaren mailan. O.ESKITXABEL



Lokatza. Ibilbidean zeharreko aldapak bizikleta sorbaldan hartuta igo zituzten askok. O.ESKITXABEL



Jendetza. Jende ugari ikus zitekeen bi kilometro eta erdi inguruko ibilbidean zehar. O.ESKITXABEL



Elite eta 23 urtez azpikoak. Ezkerretik eskuinera: Ryan Trebon (bigarren postua), Wesley Van der Linden (irabazlea) eta David Seco (hirugarren postua); garaikurrak eskuetan dituztela. O.ESKITXABEL

SAILKAPENA ▶

Eliteak.

1. Wesley Van der Linden.
2. Ryan Trebon.
3. David Seco.

23 urtez azpikoak.

1. Wesley Van der Linden.

Eliteak eta jubenilak (neskak).

1. Nahia Alzola.
2. Maitane Tellexea.
3. Lide Larrañaga.

Jubenilak (mutilak).

1. Erlantz Uriarte.
2. Ander Gomez.
3. Gorka Izagirre.

Kadeteak (mutilak).

1. Jon Izagirre.
2. Garikoitz Bravo.
3. David Juarez.

Kadeteak (neskak).

1. Andrea Vadillo.
2. Amaia Martioda.

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta **aste guztian zehar**
Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

TOLOSAR SAGARDOTEGIA

GAUR ZABALDUKO DUGU

Ergoiena auzoa Tel.: 943 18 01 19

20211 ATAUN

KIMETZ GAZTE ARROPA

%30-eko ESKAINTZA

Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

XABIER ZUBELDIA ▶ AKELARRE TALDEKO TEKLISTA

«Mugimenduen gaineratik mantendu gara»

Akelarren jotzen aritu den urte hauetan musika mailan salto izugarria nabaritzeaz gain, musikari ikaragarriekin jotzeko aukera izan duela dio ibartarrak; ziklo bati amaiera emango diote



I.ASENSIO

IÑIGO ASENSIO

Zortzi urterekin akordeoia jotzen hasi zen eta gerora piano ikasketei ekin zien. Akordeoiko goi mailako ikasketak egin eta hainbat taldetan jotzen hasi zen orduan Xabier Zubeldia. Marrumarekin eman zituen lehen pausoak musikan, ondoren Basajaunen aritu zen eta gerora Zirikan. Horrez gain Mikel Garikoitz & Denalirekin ere jo du azken urteotan eta musika irakaslea da Isidro Larraña-

ga musika eskolan. Bere ibilbideko azken bost urteetan agur esatear dagoen Akelarreko teklista gisa aritu da 30 urteko ibartarra.

Zerk eraman zaituzte 32 urte ondoren Akelarren ibilbideari amaiera ematera?

Ziklo bati amaiera eman behar geniola iruditu zaigu. Plazako giroaren estimua galdu egin dela ikusirik, neguan eginiko lan guztiak saririk ez duela iruditzen zaigu; egindakoa alferriakoa dela.

Zer dela eta galdu da plaza-giro hori?

Arrazoi ezberdinak daude. Alde batetik tabernak diskoteka bihurtu dira, orain izugarriko medioak dituztelako. Bestetik euskara bera ez dago modan eta jendeak ez du baloratzeko emanaldi bat egitea zer den. Autokritika eginez, agian belaunaldi berriak lotzeko gai ez gara izan.

Posible da, duela 20 urte Minorriak, Egan edota Akelarre

berak izan zuten entzutea egun inork ez izatea, ezta?

Dudarik gabe. Gu gure estiloari eutsiz egon diren mugimendu guztien gaineratik mantendu gara; rock radikala, trikitixaren bolada... Argitaratu diren 15 disketan Akelarre soinua nabari da, gure bideari heldu diogu. Hala ere, garbi daukagu 30 urtetan ezin dugula puntan egon, horregatik erabaki dugu zikloari amaiera ematea.

Jendeak ere kontsumo pasiborako joera erakutsi du, ezta?

Jendeak dagoena onartzen du, entzuten duena gustuko duen kontuan izan gabe. Alde horretatik zentzu kritikoaren falta nabaritu dugu.

Azkenaldian hedatzen ari den DJ kulturak ere kalte egin dizuela uste al duzue?

Gu ez gaude beraien aurka, denetarik egon behar duelako, baina herri askotako festetan ez da zuzeneko musika egon. Politikariek musika eskoletan dirua inbertitzen dute, baina zuzeneko musikari bizkarra ematean, ikasleek benetako musikariaren eredia galtzen dute, motibazioa falta zaie.

Dagoeneko bost urte daramatzazu Akelarren, bitxikeriaren bat gertatuko zitzaizuen.

Bai, adibidez Ispasterren jotzen ari ginela emakume bat gure soinua teknikariarengana hurbildu zen eta gu zoriontzeko eskatu zion, entzuten ari zenak itxura ona zuela eta. Teknikariak, lanean ari zenez, ez zion jaramonik egin. Amaitzean, Ainhua Arteta zela esan ziguten. Horrez gain bitxia izan zen Bartzelonara jotzera joan ginenean, plaza osoa fandangoak dantzatzen ikustea. Paradoxikoa da, jendearen partidetza egoteko Bartzelonara joan behar izatea.

Hori ere motibazioa izango da jotzerakoan, ezta?

Bai, harrigarria izan zen. Gainera bertako teknikariek gu entzutean eta jendearen erreakzioa ikustean hemen izugarriko arrakasta izango genuela pentsatu zuten, bitxia izan zen.

Eta hogeita hamabi urte eta gero urtarrilaren 22an izango da azken emanaldia.

Bai, Oialume dantzalekuan izango da Akelarren agurra. Printzipioz DVD bat grabatuko dute, eta denbora honetan taldetik pasatu diren musikari

AGURRA

«Plazako giroaren estimua galdu egin dela ikusirik, ziklo bati amaiera eman behar zitzaiola ikusi dugu»

KONTRAESANA

«Politikariek musika eskoletan dirua inbertitu ondoren zuzeneko musikari bizkarra ematen diote»

GEROA

«Proiektu ezberdinak ditut esku hartean, baina oraingoz denbora bat hartuko dut niretzat»

gehienak ariko dira bertan. Bestek beste, Anje Duhalde, Patrice Dumora, Jexux Mari Lopez... Orduan itzaliko da Akelarre gaua.

Zer izan da zuretzat Akelarren jo izana?

Niretzat musika mailan salto izugarria izan da. Nerbilen mundutik aldatuta handia izan zen. Musikari ikaragarriekin jotzeaz gain leku eta jende ugari ezagutu dut. Oso aberasgarria izan da.

Zerorrek ere musikari bezala heltzea nabaritu zenuen, ezta?

Exijentzia maila altuago batera egokitu beharrik guztia ematera behartzen zaitu; autosuperiora. Sei orduko errepertorioa ikasi, asimilatu eta jotzeko moduan egoteko lan handia egiten da eta gainera estilo ezberdinak jotzeak asko ikasiazarazten ditu. Teklita bezala asko ikasi dut, baina musika orokorrean, kontzeptu gisa, da gehien ikasi dudana.

Eta etorkizunera begira, zer duzu buruan?

Oraintxe magisteritza musikalero klaseak amaitu eta musikari bezala hezitzen jarraitzea dut helburu, bai akordeoia eta bai pianoarekin. Bestalde proiektu ezberdinak ditut esku artean, baita bakarka soinuairekin zerbitu ezberdina egiteko ideiak. Oraingoz denbora bat hartuko dut niretzat, gerora ikusiko dut.

Azken Akelarrea hilaren 22an Oialumen

70. hamarkadan Soraluez inguruko lagun batzuk talde bat osatzeko elkartu zirenean, ezin pentsa zezaketen euskal musikaren historiako talde esanguratsuenetako baten sorreraren arduradun izango zirela. 32 urte beranduago eta bere gain 15 disko eta ehunka kontzertu daramatzatenean, ibilbide honi amaiera jartzea erabaki dute taldekideek. Markos Juaristi (baxua), Pako Diaz (bateria), Xanet Arozena (gitarra), Juanpa Agirre (ahotsa) eta Iñigo Kruz soinua teknikariaz gain, bi tolosarrek, Xabier Zubeldia teklista eta Iker Vacas argi teknikariak osatzen dute taldearen azken formazioa. «Ziklo bati» amaiera eman eta



Abenduaren 25an Aian aritu zen Akelarre. I.ASENSIO

jarraitzaileak agurtzeko, urtarrilaren 22an Hernaniko Oialume dantzalekuan eskainiko dute azken saioa. Urte haueta-

ko errepertorioari erreparatu emateko, taldetik pasatutako musikari gehienak egongo dira Akelarren agurrean. ◀

KIROLAK ▶

Saskibaloit taldeak mailaz igotzea du aurtengo helburu

Orain arte jokatu dituen partiduetan emaitza onak lortu ditu; Liga amaitzean lehen lau postuetan egonez gero maila igotzeko aukera izango du



Tolosako saskibaloit taldeko jokalariek eta Jimmy Perez entrenatzailea —zutik eskuinean—. KLISK

EDURNE AYUSO

2005. urte hasierarekin batera, Tolosako saskibaloit taldearen ibilbideari errepasoa egin nahi izan dio HITZAK. Horretarako Jimmy Perez, taldeko entrenatzailean laguntza izan du egunkariak.

Tolosako taldeak aldaketa dezente bizi izan ditu azken urteotan. Esate baterako, duela hiru urte, taldearen norabidea aldatuko zuen erabakia hartzea egokitu zitzaion: Euskal Herri mailako taldea izateari utzi eta lurraldekako mailan jokatzeko hastea erabaki zuten. Jimmy Perezek azaldu duenez, «garai hartan, taldean baziren Tolosalde bertako jokalariek, baina lau edo bost kanpokoak ziren. Gu ez geunden egoera horrekin gustura, jokalariek guztiak bertakoak izatea nahi genuen. Horregatik, lurraldekako mailara jaiste erabaki genuen. Zailena orduan genuen mailari uko egitea izan zen, lan asko egin behar izan baitzuten hori lortzeko». Perezek azaldu duenez, taldeko kideek ondo hartu zuten erabakia «Tolosaldeko taldean jarraitzea erabaki zuten eta kanpokoak beste talde batzuk aurkitu zituzten».

Saski taldearen maila aldatzeko eragin handia izan zuen taldean. Euskal Herri mailan jokatzeko, partidu bat jokatzeko

askoz ere denbora eta diru gehiago eskatzen baitu «lehen egun osoa behar genuen partidu bat jokatzeko, orain ez. Horrela, askoz ere erritmo lasaigoa daramagu».

Lurraldekako bigarren mailan jokatu zuen taldeak hasieran, baina lehen mailara igotzea lortu zuen eta maila horri eutsi dio azken urteotan. Taldeko zuzendaritzaren asmoa, ordea, maila igotzea da. Horri esker, Gipuzkoan ez ezik, Euskal Herri osoan jokatzeko mo-

dua izango lukete. Jimmy Perezen ustez, taldearen historia aztertuta lau edo bost urteko epean hori posible izango da, baina hori noiz lortuko duten erabat zehaztea ezinezkoa omen da. Une honetan taldea lehen postuetan dago eta ligaren erdia ia-ia jokatu dutenez, pentsatzekoa da igotzeko aukerarik gertu izango dela.

Saskibaloit taldeak iraila eta maiatza bitartean jokatu du, aurre-denboraldia ordea, abuztuaren azken astean has-

ten dute. Ekaina, uztaila eta abuztua indarberritzeko hila-beteak izaten dira taldeko ki-deentzat. Gainera, ez da ahaztu behar, taldekideek euren lana edo eta euren ikasketak ere badituztela eta horretarako ere denbora behar dutela. Perezen ustez, zuzendaritzako kideek ere, beharrezkoa izaten dute hila-bete batzuk lasai hartzea. Zuzendaritzaren lana ekainean hasten da. Diru kontuak egin eta izen-emateak antolatzea izaten omen da hauen lana.

GERTUTIK ▶ LANDER LASA (TALDEKIDEA ETA EUSKADIKO SELEKZIOKO KIDEA)

Euskadiko selekzioan

Saskibaloit taldeko jokalaririk gazteena da Lander Lasa tolosarra. Hamaika urterekin hasi zen saskibaloian jokatzeko. Garai hartan futbola ere gustuko omen zuen, baina Javier Lasa bere aita ere saskibaloit jokalaria izan denez, aitaren bidea jarraitzea erabaki omen zuen. Horregatik, taldean izena eman zuen. Bestalde, duela lau urte Euskadiko selekzioan jokatzeko hasi zen. Orain oso gustura omen dabil. Gaur egun, hamasei urterekin, aste-

an bi partidu jokatzeko dituen. Izan ere, oso gaztea den arren, saskibaloit taldeko jubenilekin eta seniorrekin jokatu du. Lasaren hitzetan «batzuekin edo besteekin jokatu alde handia dago, baina hau ez du jende askok egiten eta horrek poz handia ematen dit». Lasa Batxilergoko ikaslea da eta baina omen du ikasi eta entrenatzeko nahikoa denbora. Oraindik ordea, ez daki gerora zer ikasiko duen. Momentuz, bere ametsa saskibaloian jokatzeko jarraitzea da. Egunen batean



Lander Lasa. EDURNE AYUSO

Kike Condek bezala jokatzeko gaitasunak litzaiokoe gazteari.

TALDEKIDEAK ▶

ANTOLATZAILEAK

- ▶ Kike Conde.
- ▶ Mikel Ibañez.
- ▶ Mikel Gaztearena.
- ▶ Iñigo Larrañaga.

HEGALEKOAK

- ▶ Iker Otaño.
- ▶ Ander Zulaika.
- ▶ Iñigo Martiarena.
- ▶ Alberto Zaldondo.
- ▶ Lander Lasa.

PIBOTAK

- ▶ Juan Mari Lasa.
- ▶ Kaiet Bidaurre.
- ▶ Haritz Arana.
- ▶ Enekoitz Ezkerra.
- ▶ Joseba Zubeldia.

Saskibaloitaren bilakaera

Tolosako saskibaloit taldeko entrenatzailearen hitzetan, «kirol honen maila orokorrean asko jaitsi da. Garai batean, Gipuzkoa mailako saskibaloian ezinezkoa zen jubenil batek senior mailan jokatzeko eta gaur egun hori egin liteke. Zergatik? Bada gaur egun askoz ere gutxiago jokatzeko delako. Gure garaian beti geunden baloia-ekin jolasean. Egun gazteek ez dute ezertarako astirik. Ondorioz, azken hamar urteotan gutxi eta baldintza txarretan entrenatzen da».

Zaleen aldetik ere alde nabaria omen da, «lehen jende asko izaten zen partiduetan, kiroldegiak bete egiten ziren. Gainera, primerako giroa izaten zen, jendea bokata eta ardo hartuta joaten zen. Gaur egun, askoz ere jende gutxiago mugitzen da, 20 lagun baino ez dira biltzen». Zaleen jaitsiera honetan, komunikabideek ere izan omen dute eragina. Lehen saskibaloit oihartzun handiagoa omen zuen, «irabaziko gero, komunikabideetan asko hitz egiten zen gutaz eta horrek jende asko mugitzen zuen partiduetara».

Taldeak gaur egun duen arazorik larriena entrenatzaileen eskasia omen da, «haurrak eta gazteak entrenatzeko ez dago jenderik». Zenbaitzuk entrenatzaile titulua eskuratzeko duten arren, dela lanagatik edo dela ikasketengatik, ez dute entrenatzeko aukerarik izaten.

Ia bada, Tolosaldeko saskibaloit taldeak jarri dituen helburu eta ametsak betetzen dituen eta ahalik eta azkarren mailaz igotzea lortzen duten, garai bateko giroa berriro ekarriko Bera-zubiko kiroldegira. Zorte on jokalariek eta entrenatzaileak!

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 7a, ostirala ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzasetea, Adura, Abotzu, Alegia, Alkiza, Alzotz, Ameritza, Anoeta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Edoain, Herrialde, Ibarra, Itxarotegi, Itxar, Larramendi, Leizola, Leizola, Oñena, Tolosa, Villabona, Zuzarko
besteriak: Leizaldekoko Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurerria. Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzena

10

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: ez

Albi: ez

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. Ludoteka eta liburategia irekiko dituzte gaur eta bihar. 11:00etatik 13:00etara.

Lizartza. Bihar Bilbon *Euskal Presoak Euskal Herrira* manifestaziara joateko autobusa Joxe Mari aparkalekutik 15:00etan.

Tolosa. *Bordini show* moto ikuskizuna Trianguloan 19:00etan.

Tolosa. Goiko irratian *Kornerra* saio. Bihar 13:00etan. (FM 107)

ERAKUSKETAK

Alegia. Alatz Lopezen margoak Jubilatutik elkartean.

Tolosa. Jose Enrike Ceberioaren margoak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Manuel Arretxeren margoak. Saikin tabernan.

Tolosa. Rufino de Tororen margolanak Sorron dendan.

Tolosa. Alberto Letamendiren koadroak Fronton kafetegian.

Tolosa. *Sudurrak. Naturako usain gozoez* Aranburu Jauregian.

IKASTAROAK

Alegia. Astelehenean, urtarrilaren 10ean, aerobik, mantenu gimnastika eta 3. adinekoentzako gimnastika ikastaroak hasiko dira. Izena ematea: 943 654698.

Tolosa. Tolosaldeko Gurutze Gorriaren lehen laguntzen ikastaroa hilaren 10etik 22ra. 30 ordu, astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara, eta larunbatetan 9:00etatik 14:00etara. 943 67 48 88

KIROLA

Asteasu. Joseba Egaña eta Angel Elosegi motozerran,

Elkartasuna adieraziz

LEITZA ▶ Igaro berri ditugun egun hauetan ere, etxean ez daudenetaz gogoratzeko aukerak sortzen dira



Euskal presoan aldeko herri-afaria burutu zuten, horien Euskal Herriratzea aldarrikatuz. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Eguerriak, Urtezar-Urteberri, Erregeak, egun hauetan etxe askotan ohiturazkoa da senitartekoak, lagunak, mahaiaren inguruan bildu eta gutxi-asko, otordu oparoak egitea; asko opor antzean ere egoten dira eta, herriaren barrera jolasak lehortutako zintzurri bustialdia emanez bueltara eginez ere, taldeka joan-etorrian ibili ohi da...

Baina badira, Herri honetan, semea edo alaba, anaia edo arreba, senitartekoa, lagun mina, auzokoa, lankidea, herrikoa, ezaguna... falta dutenak. Baina ez, jadanik, ez direlako,

—kasu horretan ere hutsartea berdin-berdin sentitzen da, noski,— baizik eta ondoan egon ezin direlako; hurbil sentitu arren, urrun daudelako; inguruan izan beharrean, ahalik eta distantzia luzeenean dauzkatelako; jada etxean egon behar luketenak, oraindik ere kaiola grisetan giltzapetuta mantentzen dituztelako; gaua-ten iluntasunaz baliatuz, euskaldun izateagatik beragatik hartu eta eraman, eta zigorpean dauzkatelako... Zenbat eta zenbat horrelako sufrimendu gogor bezain isil dago Euskal Herriko etxeetako sukalde txokoetan!

Hau guztia eta gehiago, eramangarriago egiten laguntzen

dute aitatutako egun horietan, eta gainerakoetan ere, izan ohi diren elkartasun adierazpenek. Herri askotan antolatutako ohi dira elkarretaratzeak, mota askotakoak.

Leitzan esate baterako, herri-afaria egin ohi da ilbeltzaren 5ean, arestiko sukaldeetan dagoen hutsune hori, behin betikoz bete dadin, zuzeneko senideei laguntza ekonomiko eta juridikoa ahalmenu bide-nabar, han biltzen diren guztien artean hala-hola titkitzen saiatzeko.

Horrela, 130 lagun bildu ziren mahaira, kantuaq dion moduan, *Laister, laister, laister laister...* konponbideari leihoa irekitzeko aiherrak.

enbor ebakitzen eta korrikan ariko dira. Inaxio Tapiak eta Jose Mari Sorraluzek aharien erakusketara egingo dute. Andazarrate parkeen etzi 11:30ean.

Donostia. Inter Intxaurren-Trans. Lakunza (Areto futbol. Autonomikoa) Mons kiroldegian 22:15ean.

Tolosa. Eskolapioak B-Errotandi Lazkao (Areto futbol. 1. Maila A) Eskolapioetan 20:45ean.

Tolosa. Laskorain-Orioko tabernak (Areto futbol. 2. Maila A). Berazubín 21:30ean.

Tolosa. Laskorain-Tinta Billabona (Areto futbol. Neskak). Ilarramendin 22:30ean.

LEHIAKETAK

Alegia. Gaztearen 17. urteurrena dela-eta, play-back lehiaketa izango da gaur gauean Gaztearen.

Leitza. Mendibil mendi taldeak mendia eta naturaz antolatutako III. argazki lehiaketa parte hartu nahi dutenek hilaren 15erako aurkeztu beharko dituzte (3 argazki gehienek eta 20x30) Maimur eta Astiz liburudendetan.

MUSIKA

Anoeta. Bihar trikipoteoa 19:30ean, afaria Gaztearen 21:00etan (txartelak Itzuli tabernan) eta 23:00etan Ameba eta Kabul taldeen kontzertua; ondoren, Txirrikas festa.

Villabona. *Split 77, Materia* eta *Desperdicío* taldeak. 22:30ean Gaztearen.

ZINEMA

Tolosa. *El maquinista* filma Leidor zineman. 19:30ean eta 22:30ean.

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK
Ugartz Iturrioz Olaizola.
Gaur urtebete. Zorionak famili guztien partetik.



URTE ASKOAN
Eukene (Anoeta).
Zorionak ebeko sorginar.
Muxuak. Ama.



URTE ASKOAN
Ioritz Agirretxe (Olazti).
Gaur hiru urte.
Zorionak ebekoen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!